



# Digitala lan taldearen 2021-2024 Bide Orria



## Zergatik Digitala lan taldea sortu Bizin?

Internet eta smartphonen hedatze masiboaz geroztik, digitalak gure bizi pertsonalak eta profesionalak inbaditu ditu, hoberenerako eta txarrenerako. Berrikiago, digitalak ingurumenean eta gizartean dituen eraginak arrangura iturri berriak ditugu. Egoera horri oharturik, zer jarrera mota hautatu? Hemen proposatzen dugu digitala tresna tekniko gisa kontsideratzea, ez gehiago, ez gutiago, Bernard Stiegler-en erranetan oinarrituz: «Teknologia oro pharmakona da: hitz greko horrek erran nahi du aldi berean pozoia eta sendagailua dela. Teknologia pharmakonak promesak ekartzen ditu, baina beti mila arazo sortuz lehenik, lekuan diren koadroen suntsitzetik hasten baita.»

2020.urte bukaeran, Bizik erabaki zuen sail berri hortan sartzea lan talde berezia sortuz, helburu estrategiko hauekin: digitalaren alde txarrak salatu, kontzientziak aldatu eta alternatibak proposatu. Dokumentu hura 2021-2024ko bide orritzat hartua du lan taldeak.

## Ardatzak-Desafioak

Hiru ardatz nagusi identifikatu eta definitu ditugu, teknologia berrien garapen oso handiak hunki eremuaren arabera

## Digitalak estresatzen du ...



“Planeta” ardatzeko desafioek tresna digitalen bizi-zikloari dagozkie: haien fabrikatzea, erabiltzea eta haien bizi bukaera. Arazoa bere osotasunean ikusteko bidea ematen dute.

“Jendea” ardatzeko desafioetan, tresna digitalen erabiltzeak norbanakoen heinean dakartzan arriskuak identifikatzen dira.

Jendearen heinetik abiatuz eta gibelerako zoom bat eginez, “Jendartea” heinera heldu gara, non gure bizien digitalizazioari eta baliabide digitalen eskuratzeko aukeren berdintasun ezari lotu joerak aztertzen baitira.

# Proposatua den desmartxa

Lan talde berri baten abiatzea eta arlo ezberdin batean ekitea, hasiera batean, ezagutza eremu baten bereganatzea da, ezagutza horien sintesia egitea eta elkarrekin adostu erabakien hartzea. Zehaztuak izan diren lan ardatzak anbiziotsuak dira, ainitz helburu badira, eta lehen fase honek, lehen urtea dugun 2021 urte honen zati on batez okupatuko gaitu.

Eta ondotik, bi irizpide konduan hartuko dituzten ekintzak etorriko dira :

- lehenetasunak finkatu, erronka bakoitzak dituen ondorioei lotuak diren larrialdien arabera
- urrats handiak eta ttipiak txandakatu

Gure ekintzek, lurraldeko jendarte osoa xedetzat dute, baina erabaki dugu, apurka hastea, ekintzak egokiak direla segurtatzea, eta ondotik hauen zabaltzea ahal bezain jende kopuru handiari buruz. Xede horri buruz, nahi dugu aitzinatu molde zentrokidean, Digitala lantaldetik beretik partituz, ondotik Koordinaketatik, eta gero Biziko kideetarik eta azkenik beste herritar guzietara heldu.

Bestalde, pentsatzen dugu gure ekintzen parte handi bat pedagogikoa izanen dela, kontzientzia hartze orokorra oraino egitekoa baita.

Horiek hola, ondoko lehenetasunak aitzinatzen ahal ditugu lehen bi urteei buruz: Biziren baitan gai horren ager araztea, «numerikoak planeta estresatzen du», eta bizi pribatuaren erronka tratatu.

## Zein baliabidetan oinarritu ?

Biziren Digitala lan taldearen xedea da bere jarduerak partekatzea hurbilak dituen beste hainbat elkarterekin (Alternatiba, KTRC, etab.) eta antzeko gaitan inplikatzeko diren egituren lanetan oinarritzea (Framasoft, GreenIT, La Quadrature du Net, Negaocet, ShiftProject...).

Inspirazio iturriei dagokienez, ez dira falta. Adibidez: John Perry Barlow, Gilbert Simondon, Harmut Rosa, Eric Sadin, Bernard Stiegler, Aaron Swartz, Shoshana Zuboff ...

*"Teknika ez da berez toxikoa, teknika behar bezala sozializatzekeo dugun ezintasuna da toxikoa"*  
(Bernard Stiegler)

*Biziren Digitala lan taldea - 2021eko Ekaina*